



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Kidea - Idazkaria / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 5/2020 ebazpena

Recurso 4/2020 errekurtsua

GRANT THORNTON SLP enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezi bat jarri zuen Kontratazio Mahaiak 2020ko ekainaren 25ean hartutako erabakiaren aurka, zeinaren bidez enpresa bazterten baita zerbitzu hauek kontratatzeko prozeduratik: *“Aholkularitza eta idazkaritza teknikoko zerbitzuak, lan esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko kontziliazio erantzunkiderako politikak bultzatzeko ekimenak egiteko”*. Errekurtsu horren ganean, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko egunean egindako bileran, goian aipatu diren kideak bertan zirela, aho batez hartu du erabaki hau.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GRANT THORNTON SLP contra el acuerdo de la Mesa de Contratación de 25 de junio de 2020 por el que se la excluye del procedimiento para la contratación de los servicios de *“asesoría y secretaría técnica para la realización de iniciativas para impulsar políticas para la igualdad de mujeres y hombres y conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y profesional en el ámbito laboral”*, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- Auzitegiaren erregistroan 2020ko uztailaren 1ean aurkeztutako idazkiaren bidez, GRANT THORNTON SLP enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezi bat jarri zuen ebazpen honen buruan aipatutako erabakiaren aurka.

BIGARRENA.- Hurrengo egunean, Auzitegiak errekurtsogileari bidali zion akatsak zuzentzeko errekerimendua; hartara, hiru egun balioduneko epean, agertutako alderdiaren ordezkari egiazta zezan, eta ohartarazi zitzaion ezen, hala egiten ez bazuen, eskaeran atzera egin zuela ulertuko zela, hala xedatzen baitu, 51. artikuluko 1.a) eta 2.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro del Tribunal el día 1 de julio de 2020, GRANT THORNTON SLP interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo referido en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- Al día siguiente el Tribunal remitió a la recurrente requerimiento de subsanación para que en el plazo de tres días hábiles acreditara la representación del compareciente, y se le advertía que si no lo hiciera, se le tendría por desistida de su recurso, de acuerdo con lo dispuesto por los apartados 1.a) y 2 del artículo 51 de la Ley

ataletan, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (aurrerantzean, SPKL). Errekurtsogileak uztailaren 3an jaso zuen errekerimendu hori.

HIRUGARRENA.- Uztailaren 3an bertan, GRANT THORNTON SLP enpresak bigarren idazki bat aurkeztu zuen baztertzeko erabaki beraren aurka, zeina, funtsean, bi egun lehenago aurkeztutakoaren berdin-berdina baitzen, nahiz eta bi paragrafo berri eduki, eta aurreko idazkian aurkeztutako dokumentu berak aurkeztu zituen. Alabaina, ez zuen ezer alegatzean akatsak zuzentzeko errekerimenduari buruz, eta ez zuen egiaztatzen agertutako alderdiaren ordezkariak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtsu berezi hori jartzen da, hau da, 148.760,33 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu-kontratu bat adjudikatzeko prozeduran errekurtsogileak aurkeztutako proposamena baztertzeko egintzaren aurka.

Beraz, kontratazio arloko errekurtsu berezia jar daiteke errekurtsua jarri zaion egintzaren aurka, hala xedatzen baitute SPKLko 44. artikuluko 1.a) eta 2.b) atalek, eta auzitegi honi dagokio errekurtsuaz arduratzeko gaitasuna, hala esleitzen baitio, 2.1 artikuluan, 24/2010 Foru Dekretuak, 2010eko irailaren 28koak, Kontratazio Alorreko Errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzekoak.

BIGARRENA.- Errekurtsogileak legitimazioa du errekurtsua jartzeko, hala xedatzen baitu, 48. artikuluan, SPKLk, eta hamabost egun baliioduneko epearen barruan jarri da errekurtsua, hala aurreikusten baitu, 50.1.c) artikuluan, SPKLk, kontuan hartzen bada aurkaratutako erabakiaren jakinarazpena 2020ko ekainaren 25ean egin zela.

HIRUGARRENA.- SPKLko 51.1.a) artikulua

9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP). La recurrente recibió dicho requerimiento el día 3 de julio.

TERCERO.- El mismo 3 de julio GRANT THORNTON SLP presentó un segundo escrito de interposición de recurso contra el mismo acuerdo de exclusión, que era idéntico, en lo sustancial, al presentado dos días antes, si bien contenía dos párrafos nuevos, y acompañaba los mismos documentos que los presentados con el escrito anterior. Pero nada alegaba sobre el requerimiento de subsanación ni acreditaba la representación del compareciente.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- Este recurso especial se interpone contra el acto de exclusión de la proposición presentada por la recurrente en el procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 148.760,33 euros.

Por tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.b) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que la notificación del acuerdo impugnado se efectuó el 25 de junio de 2020.

TERCERO.- El artículo 51.1.a) LCSP exige que



eskatzen du ezen, errekurtsoa jartzeko idazkiari gehitu beharko zaiola agertutako alderdiaren ordezkari egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean aurkeztu den eta ebazteke dagoen beste errekurtso baten jarduketetan ez dagoen halakorik.

Orobat, hala xedatzen baitu, 22.1 artikuluan, kontratuen arloko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamenduak, zeina onartu baitzuen 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, errekurtsoa onartzea dagokio, baina bakar-bakarrik baldin eta atal horrek eskatzen dituen betekizunak betetzen badira, zeintzuen artean baitago errekurtsogilearen ordezkari egiaztatzea horretarako nahikoa den botere baten bitartez.

Era berean, aipatutako erregelamenduak 24. artikuluko 3. puntuan ezartzen duenez, edonolako pertsona juridikoen ordezkari errekurtsoa jartzeak eskatuko du boterea izatea horretarako nahikoak diren ahalmenekin.

Errekurtso idazkiak akatsak izanez gero, SPKLko 51.2 artikulua xedatzen du ezen, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera hiru egun baliadun emango zaizkiola interesdunari akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Kasu horretan, espedientearen izapidetzea etenda geldituko da, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako ondorioak sortuko ditu. Artikulu horren beraren arabera, dokumentazio zuzendua errekurtsoa ebazteko eskuduna den organoaren erregistroan aurkeztuko da, nahitaez.

Bada, kasu honetan, dagoeneko adierazi den bezala, 2020ko uztailaren 2an bidalitako idazkiaren bidez, Auzitegiak errekerimendua

al escrito de interposición del recurso se acompañe el documento que acredite la representación del compareciente, salvo si figurase unido a las actuaciones de otro recurso pendiente ante el mismo órgano, en cuyo caso podrá solicitarse que se expida certificación para su unión al procedimiento.

Asimismo, el artículo 22.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por el Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, dispone que solo procederá la admisión del recurso cuando concurren los requisitos que ese apartado exige, entre los que se encuentra la acreditación de la representación del recurrente mediante poder que sea suficiente a tal efecto.

A su vez, el artículo 24 del citado Reglamento establece en su apartado 3 que la interposición del recurso en representación de las personas jurídicas de cualquier clase requerirá de poder con facultades suficientes al efecto.

Para la subsanación de los defectos que puedan afectar al escrito de recurso, el artículo 51.2 LCSP dispone que se requerirá al interesado a fin de que, en un plazo de tres días hábiles desde el siguiente a su notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, quedando suspendida la tramitación del expediente con los efectos previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Según ese mismo artículo, la presentación de la documentación subsanada se hará, necesariamente, en el registro del órgano competente para la resolución del recurso.

Pues bien, en este caso, como ya se ha señalado, por escrito remitido el 2 de julio de 2020 el Tribunal requirió a la recurrente para que

bidali zion errekurtsogileari, agertutako alderdiaren ordezkartza egiazta zezan, eta ohartarazi zitzaion ezen, hala egiten ez bazuen, eskaeran atzera egin zuela ulertuko zela.

acreditara la representación del compareciente en el plazo de tres días, con la advertencia de que, si así no lo hiciera, se le tendría por desistida de su recurso.

Epe hori iraganda, errekurtsogileak ez du zuzendu antzemandako akatsa, eta ez du ezer alegatu horri buruz.

Transcurrido dicho plazo, la recurrente no ha subsanado el defecto advertido ni ha alegado nada al respecto.

Beraz, errekurtsuan atzera egin duela ulertzea dagokio, ez egiaztatzeagatik bere izenean errekurtsua jartzen duen pertsonaren ordezkartza.

En consecuencia, procede tenerla por desistida del recurso por falta de acreditación de la representación de la persona que lo interpone en su nombre.

Hori dela eta, Kontratazio Alorreko Errekurtoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

Ulertzea GRANT THORNTON SLP enpresak atzera egin duela kontratazio arloko errekurtsu berezian, zeina jarri baitzuen ebazpen honen buruan aipatutako erabakiaren aurka.

Tener por desistida a GRANT THORNTON SLP del recurso especial en materia de contratación interpuesto contra el acuerdo referido en el encabezamiento de esta resolución.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2020ko uztailaren 21a / San Sebastián, 21 de julio de 2020.